

imagina 38

ECONOMÍA SOLIDARIA QUE TRANSFORMA
ERALDATZAILEA DEN EKONOMIA SOLIDARIOA



JUNIO 2025KO EKAINA | ISSN: NA/2.750/2010




**ETXEBIZITZA
KOOPERATIBOAK,
ELKARBIZITZA
KOMUNITARIOAKO
EREDUA**



INKORPORAZIO BERRIAK

EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAN

Azken hilabetetan REAS Nafarroako sarera 4 proiektu ekonomiko berri batu dira: Azokoop, El Tinglado, Amarauna eta Estudio Oscar Larrañeta. Zonalde despopulatuan zerbitzuak eskaintzen duena, arkitekturan adituak, etxebizitza kooperatiboa, diseinatzaile grafikoa.



Azokoop

Artzibarreko Zerbitzuen eta Ogibideen Kooperatiba Artzibarren eta inguruko ibarretan zonalde despopulatu honetan bizitza errazteko helburuarekin zerbitzu ezberdinak eskaintzen dituzte. Hala nola tokiko produktuen eta produktu ekologikoen denda, baratzerako tresneria alokatu, inprimazioak, musika hezkuntza eta musikoterapia eta proiektuen arteko elkarlaguntza sustatu proiektu berriak lagunduz.

«**Ekonomia eraldatzaileak beharrezkoak ikusten ditugu, egungo ekonomia kapitalista mundua akatzen duen bitartean. Bakarrik ezer gutxi lortu dezakegu, taldean gehio eta sarean... sarean sistema iraultzeko aukerak daudela uste dugu**», diote Txabi Badosek eta Rita Perandrések.

El Tinglado

Un equipo de arquitectura comprometido con la transformación social y la creación de espacios que mejoren la calidad de vida de las personas, cuidando el entorno. Esa es la definición de El Tinglado. Para ello, emplean metodologías participativas y soluciones de proximidad, teniendo en cuenta los principios de la ecología y la perspectiva de género.

Participan de REAS porque la Economía Social y Solidaria «**conforma un paraguas de principios éticos bajo el cual, pensamos, se nos permite organizar nuestro trabajo de una manera más acorde con nuestra visión particular de la arquitectura y del urbanismo**». Además, REAS supone un espacio que les permite entrar en contacto y tejer alianzas con otras entidades con las que comparten prácticas y principios éticos.

Amarauna

Amarauna irabazi-asmorik gabeko elkarte autogestionatua da. Ziordian kokatua dagoen gunen honetan kolektibo, elkarte, herri mugimenduari zein norbanakoei irekita dagoen espazio bat eskaintzen zaie. Gainera, etxebizitza kooperatiba bat da, non ia 20 pertsona bizi diren. Ibai ertzean dago eta hiru hektarea dituen lur saila okupatzen du. Atzekaldean aterpe ederra, lorategiak eta baratzak ditu. Kanpoaldea oilategia, ikuilua eta soroa osatzen dute.

REASen sartzea erabaki dute «**beste talde eta kolektiboekin sartzeko, espazioa zabaltzeko eta etxebizitza koperatibak hauspotzen jarraitzeko**».

Estudio Oscar Larrañeta

Oscar Larrañeta se dedica a la identidad visual y el diseño gráfico y web. Apuesta por un diseño funcional, que aporte valor y sea perdurable en el tiempo. Con un estilo limpio y sutil, cree en las campañas de comunicación atrevidas e intenta aportar la perspectiva de la justicia social y la sostenibilidad en cada proyecto. En especial, trata de promover el diseño universal e incluso a través de criterios de accesibilidad.

«**Formar parte de REAS era una tarea pendiente para formalizar mi compromiso con la economía solidaria y reivindicar otra forma de hacer las cosas, así como una oportunidad de conocer y colaborar con otras entidades que comparten estos principios**», asegura.

Eva Azkona | Xanti Kiroga • Reas Navarra

EKONOMIA SOLIDARIOA

LURRALDE OSORA

HEDATZE A

Azkonak eta Kirogak Nafarroako REASEko talde teknikoa sendotu dute, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren eragina Nafarroako lurralde osora hedatzeko asmoz eta Sarea osatzen duten erakundeei arreta hobea eskaintzeko.

Gaur egun, izan ere, REASEko entitate gehienak Iruñerrian daude kokatuak. Zergatik gertatzen da hori eta zer ondorio ditu?

Jarduera ekonomikoa eta zerbitzuak Iruñerrian dauden metatuak. Horrek metaketa demografiko urbanoa eragiten du eremu horretan, eta aldiz, desertizazio ekonomikoa, zerbitzurik eza eta despopulazioa gero eta landa-eskualde gehiagotan. Hori ere ESSren mapan ikusten da, baina egoera hori eragiten duen estrategiarekin bat ez bagatoz eta bestelako ekonomian dihardugula pentsatzen badugu, aurre egin behar diogu. Erronka bat da eta REASEk horri heltzea erabaki du.

Iruñerritik kanpo, bada ESSrekin identifikatzen den ekimen ekonomikorik?

Jakina eta “mapaketa” hori lehentasunezkoa da. Dozenaka ekimen ari dira objektiboki era eredugarrian garatzen Ekonomia Sozial eta Solidarioaren 6 printzipioak. Lankidetzan aritzea, sare lana egitea, ingurune hurbilenean arreta jartzea, jasagarria izatea... hori guztia are beharrezkoagoa da ingurune horietan eta, oro har, hori egiteko prestasuna handiagoa da.

Zuen ustez, zergatik da garrantzitsua ES landa eremuetara hedatzea eta zeintzuk izan daitezke aliatuak zeregin horretan?

Pertsona guztiek merezi dutelako eskura izatea ESSk eskaintzen dituen onurak, dela ekonomian eta gizartean, dela ingurumenean, pertsonak non bizi diren alde batera utzita. Erronka da errealitate horiekin kontaktuan sartzea eta sare handiago batean parte hartzeak dakartzan abantaila jartzea haien eskura. Hau da, jakintzak eta baliabideak eskuratu ahal izatea. Eskualde eta herri bakoitzaren egoerara egokitzuz ezar daitezkeen proiektu arrakastatsuak eta jardunbide egokiak ezagutzea. Aliatu nagusiak tokiko entitate konprometituak dira eta komunitaterik aktiboek funtsezkoak dira.

Zer behar atzeman dituzue eremu horietan eta nola ase daitezke ESren bidez?

Jendeak bizi-premia berdinak izan ohi ditu: elikadura, etxebizitza, energia, zaintzak, mugikortasuna, konektibitatea... Inguruabarrak aldatzen dira, bai eta premiak asetzeko zailtasunak ere. ESSren abantaila handia da jendearen beharrak jartzen dituela erdigunean; ez, ordea, irabazi-asmoa. Horrek esan nahi du lehiaren ordezkari lankidetzak bultzatzen duela, eta bakoitzaren onura lehenesten ez duten proiektuak eraikitzen dituela, guztion onuraren alde egiten duela, bai eta aberastasuna banatzearen eta enplegu duinaren alde ere. ESS barnean adibide bikainak ditugu elikadura-sistema birlokalizatzeke, espekulaziotik kanpo dagoen etxebizitza kolaboratiboa sustatzeko,



EVA AZKONA

XANTI KIROGA

«**ESSren abantaila handia da jendearen beharrak jartzen dituela erdigunean; ez, ordea, irabazi-asmoa**»

energia jasagarria sortu eta merkaturatzeko, baita irabazi-asmorik gabeko finantza-alternatibak bultzatzeko ere. Ezagutzera eman behar dira eta errealitate horietan aplikatu.

Zuen eginkizunen artean ere REASEko entitateei erabateko arreta ematea dago. Zertan egin duzue aurrera eta zer behar atzeman dituzue?

Entitateekin harremana estutzea dugu helburu eta entitateak sarera hurbiltzea, praktikotasuna areagotuta, aholkularitza eta gisako zerbitzuen bidez. Prestakuntza tailerrak antolatu ditugu lan arloko sexu jazarpenari buruz eta hizkuntza normalizazioaz, eta gai horiek lantzen ere jarraituko dugu. Erronketako bat da entitateetako langile eta bazkide guztien sentsibilizazioa handitzea ekonomia solidarioaren eta haren tresnen inguruan, eta elkarren arteko lankidetzak handitzea.

Zer eskaintzen diegu Ekonomia Sozial eta Solidarioarekin bat ekin nahi dutenei?

Laguntza eta aholkularitza zerbitzu bat eskaintzen dugu ESS moldean nola ekin irakasteko; nagusiki, proiektu kolektiboek zuzendua. Gure entitateetako asko, nahiz eta ez duten tamainaz hazi nahi, prest daude beren esperientzia eta ezagutzak mentoretzen bidez partekatzeke, erreplikagarria izan dadin.

ERABILERA-LAGAPENENKO ETXEBIZITZA KOOPERATIBAK

Glòria Rubio etxebizitza kooperatibak sustatzen dituen La Dinamo Fundazioko koordinatzailea da. Eredu hori zabaltzen ari da, merkatuaren egoera ikusirik eta behar-beharrezkoa zaigun ondasun hori eskuratzeko zailtasuna kontuan harturik.

Zertaz ari gara lagapen-erabilerako etxebizitza kooperatibez ari garenean? Gauza bera al dira co-housing-a edo etxebizitza kolaboratiboak?

Lagapen-erabilerako etxebizitza kooperatibez ari garenean, jabetza kolektiboan oinarrituta dagoen eredu batez ari gara. Izan ere, kooperatiba bat eratzen da, eta kooperatiba hori eraikinaren jabea izanen da; bazkideek espazio pribatiboak erabiltzeko eskubide mugagabea izanen dute, bai eta espazio komunitarioak ere. Etxebizitzaren gaineko erabilera espekulatibo guztiak eragotziko dira, eta bertan irautea ziurtatuko da. Eredu horrek hainbat balio ditu oinarri, hala nola autokudeaketa, jasangarritasuna eta irabazi-asmorik ez izatea. Ereduak beste ezaugarri bat ere badu, hots, lurraldean eta ingurunean sustraitua egotea, helburua ez baita bakarrik etxebizitza bat eraikitzea, komunitatea ere eraikitzea baizik.

Cohousing-a edo etxebizitza kolaboratiboak antzekoak izan daitezke bizitza komunitarioari edo espazio partekatuei dagokienez, baina askotan, ez dute eredu juridiko kooperatiborik, eta ez dute jabetza pribatua bazterten. Beraz, gauza batzuk antzekoak badira ere, beti ez dira gauza berbera.

Sektore hori garapen garrantzitsua izaten ari da Katalunian. Zergatik?

Katalunian eredu hori hazi egin da, hainbat faktore batera gertatu direlako: tradizio kooperatibo handia, etxebizitza-eskubidearen aldeko gizarte mugimendu oso aktiboak, eta berrikitan, horrelako ekimenak aintzat hartzen eta laguntzen hasi diren politika publikoak. Horrez gain, La Dinamo Fundazioa eta gisako erakundeak agertu dira, eredu hori bultzatzeko, eta kooperatiba taldeei laguntza teknikoak, finantzarioak eta juridikoak emateko. Europako beste leku batzuetan, hala nola Alemanian, Danimarkan eta Suitzan, ereduak ibilbide luzeagoa eginga du, ibilbide finkatuagoa, eta bere esparru juridikoak eta finantzarioak ditu. Berlinen, adibidez, ehunka dira antzeko proiektuak.

Zein dira etxebizitza kooperatiba batek bere proiektua abian jartzean dituen erronka nagusiak?

Lehena da lurzorua edota baldintza bideragarriak dituzten eraikinak eskuratzeko, eta hori oso zaila da merkatu oso espekulatiboetan. Gero, alderdi ekonomikoak datoz: finantzazioa lortzea epe luzean eta eredu ez-espekulatibo horretara egokitua, eta ereduaren aldeko politika publiko ausartak egotea. Eta, jakina, erronka komunitarioak: erabaki kolektiboak hartzen ikastea, gatazkak kudeatzea, elkarrekin bizitzeko proiektu bat zehaztea... Horregatik, funtsezkoa da laguntza teknikoak eta komunitarioak, bai eta administrazio publikoen borondate politikoa ere.

Eredu hori eskuragarria da kolko guztientzat? Egiten zaizkion kritike-tako bat da ez dela egokitzen baliabide gutxieneko pertsonentzat...




«Etxebizitzaren arazoa konponduko bada, merkatuko ondasuna izateari utzi beharko lioke»

Egia da ereduaren aldeko politika publiko irmorik ezean, ereduak gizarte sektore jakin batzuen irismenetik kanpo gera daitekeela. Baina erabilera-lagapenak aukera oso irisgarria izateko ahalmena dauka: ez duzu zertan bizitza guztirako zorpeturik, ezta merkatuko alokairu bat ordaindu ere. Dena den, administrazio publikoek lurzoru publikoa, finantzabide egokitua eta berariazko laguntzak eman beharko dituzte ereduak egiazki inklusiboa eta guztiontzakoa izan dadin. Badira ekonomikoki oso eskuragarriak diren kasuak eta, horiei esker, sektore jakin batzuek badute etxebizitza eskuratzeko aukera. Lehenetsun kontua da, eta borondate politikoa behar da.

Nola aldatu beharko dira etxebizitza arloko politika publikoak eredu kooperatibo horri bide emateko?

Politikek etxebizitza kooperatiboaren sektorea aitortu eta sustatu behar dute, gizarte interes handia duelako, etxebizitza eskuragarrien parkea handitzeko aukera ematen ari delako eta lurzoru pribatuaren kooperatibizazioa bermatzen ari delako, logika espekulatiboetan egoteari uzteko. Eta horrek esan nahi du lurzoru publikoa erreserbatu beharko dela erabilera-lagapeneko kooperatibetarako, kreditu bigunak eman, laguntza teknikoak eman, eta berme edo abal mekanismoak jarri. Era berean, lege-esparru egonkor eta berariazkoa behar da, ekimen horiei segurtasun juridikoa emateko.

«Politika publikoek etxebizitza kooperatiboa sustatu behar dute, gizarte interes handia duelako, etxebizitza eskuragarrien parkea handitzen duelako eta lurzoruaren kooperatibizazioa bermatzen duelako»



Zer neurritan lagundu dezake konpontzen eredu kooperatibo horrek etxebizitza duina eskuratzeko arazoa?

Etxebizitzaren arazoa konponduko bada, merkatuko ondasuna izateari utzi beharko lioke. Hala ere, erabilera-lagapeneko etxebizitza kooperatiboa eta gisako ereduak egiazko alternatiba izaten ari dira, eta gako garrantzitsua dira etxebizitza eskuragarria, egonkorra, irabazi-asmorik gabea, eta lurraldeari eta sare komunitarioari lotutakoa, sortzeko. Epe luzean, merkatuan sartzen ez den eta belaunaldiz belaunaldi eskuragarri dirauen etxebizitza-parke bat sortzen du. Gainera, pertsonak eta komunitateak ahaldunduzten ditu oinarritzko eskubide baten kudeaketan.

Asko oroitzen gara lelo batez, hots, “ez duzu etxerik izanen zure bizitza madarikatu osoan”. Baina, eta jabeak ez bagara, erabiltzaileak baizik?

Hau da, jabetzako etxebizitzaren orde ez etxebizitza bat edukitzea bizitzeko. Nola aldatu kontzeptu hori? Aldaketa kultural hori funtsezkoa da. Hamarkada sail luzean sinestearazi digute etxe bat edukitzea eta etxe bat erostea baliokideak direla. Baina horren ondorioz, bizitza osorako hipotekatu gara eta etxebizitza-eskubidea merkatuaren logikapean sartu dugu.

Erabilera lagatzeko ereduak bestelako narratiba dakar: ez duzu jabea izan beharrik segurtasuna, autonomia eta bizitza duina izateko. Sarbide egonkorra behar duzu etxe batera. Erabiltzailea izateak eta jabea ez izateak aldaketa dakarte; etxebizitza ez baita merkantzia eskubidea baizik.

Duela gutxi Iruñean izan zara, REASek etxebizitzaren inguruan antolatuko jardunaldietan. Zer iritzi duzu erakundeak eta etxebizitza-kooperatibak hemen egiten ari diren lanaz?

Oso iritzi ona. Badago pertsonaz, entitatez eta erakundez osaturiko sare bizi bat, etxebizitza eskuratzeko ereduak eraldatzearen alde ari direnak, eta hori inspiratzailea da zinez. Jardunaldiak oso topagune aberatsa izan ziren, eta esperientzia ausartak eta konprometituak partekatu ziren. Badira erronkak, jakina, baina aldi berean indar handia alternatibak kolektibotasunez eraikitzeak.

Bestalde, administrazio publikoei dagokienez, bide luzea dago egiteko, eta ausartak izan beharko dute garatu beharreko politiketan, baldin eta egiazki etxebizitza kooperatibismoaren ereduari babesa eman nahi badiote.

ALDAKETA SOZIALERAKO TRESNAK
HERRAMIENTAS PARA EL CAMBIO SOCIAL

tressnak

INFO +



ETXEBIZITZA KOOPERATIBOA

NAFARROAN ZABALTZEN ARI DEN EREDU EZ ESPEKULATIBOA

Koobizitza da Euskal Herriko eta Errioxako etxebizitza kooperatiboak elkartzen dituen sareak. REAS Nafarroak babesten eta hauspotzen duen sare honetan buru belarri ari dira bizitoki berri bat bilatzen duten herritarrak eta gaur egun errealtatea diren beste hainbat. Denak zerbait amankomuna dute: eredu espekulatibotik at, etxebizitza beste modu batez ulertzeko bada.

Amarauna [Ziordia]

Aurtengo irailean 10 urte beteko dira mojekin harremanetan jarri eta 4 gazte bizitzera joan zirenetik. «Ordutik hona hainbat fase igaro ditugu, baina beti heldu diogu proiektuaren zutabeari, Amarauna herri mugimenduari norbanakoei irekitako gunea izateari», dio Jordi Arbizuk.

Hasieran elkartea bat zena, kooperatiba bat izatera egin zuen salto, eta eraiki-na zein lurra erosi zituzten. Gaur egun ia 20 pertsona bizi dira Amaraunan eta 50 bazkide ditu elkartek.

Landa eremuan kokaturiko kooperatiba honetan espazio bizi bat izatea eta herri mugimenduarentzat baliagarria izatea lehenesten dute. «Amarauna astean zehar, oso toki lasaia da, asteburutan oso bizia, neguan hotza eta udan oso oparoa. Elkarbizitza unitate bakoitza gure pribatasun espazioak ditugu eta gure diru iturri pertsonalak Amaraunatik kanpo daude», azaltzen du Arbizuk. Oilotegia, baratza, taldeentzako espazioak, tailerrak, ikastaroak... «Gure bizitzaren denbora dexente Amaraunan ematen dugu» nabarmen-tzen du.

Eta elkarbizitza sustatzeko, modu asanblearioan antolatzen dira: «Amarau-naren erabakigunea astero egiten dugun asanblada da. Eztabaida sakona-goak hiruhilabetean behin “barne bileran” lantzen ditugu. Kideen arteko gatazkak bideratzeko “Biltzar borobilaren” dinamika erabili izan dugu, en-tzumen aktiboan oinarrituz», azaldu digu Arbizuk.

Artizarra [Iruñea]

2017an Artizarra lagunak LGTBQ+ pertsonendako etxebizitza kolaborati-boa proiektatzen hasi ziren. «Konturatzen baikinaren bakardadeak eta bal-dintza sozialek etorkizunean bakarrik bizitzera eramango gintuztela, edo kasu batzuetan, helduentzako egoitzen mende egotera, non armairura itzuli beharko ginatke». Ander Azparrenen hitzak dira hauek. Gora behera batzuk izan ostean, 9 pertsonak osaturiko taldea mantentzen lortu dute, eta euren ilusioa da Iruñean proiektu bat garatzea.

«Etxebizitzarekin nahiko une kezkarria bizitzen ari gara, eta kooperati-bismoa bizitoki alternatiba bat izan daiteke, jabetza pribatuaz eta espek- lazio basatiaz haratago», uste du Azparrenek.

«Gure sexu nortasunak eta orientazioak gure bizitza eta ingurunea bal-dintzatu dituela ulertzen genuen, eta, proiektu hau aukeratuz gero, gure orientazioak erdigunean egon behar zuela uste dugu», azaltzen du, eta horregatik proiektuarekin duintasuna, inklusioa eta ikusgarritasuna», defendatu nahi dute.

«Etxebizitzarekin nahiko une kezkarria bizitzen ari gara, eta kooperatibismoa bizitoki alternatiba bat izan daiteke, jabe-tza pribatuaz eta espekulazio basatiaz haratago»

Etxekide [Iruñea]

32 lagunek osatzen duten proiektu kooperatibo honek duela gutxi lortu du obrarekin hasteko baimena. Txantrean eraikiko diren 25 etxebizitza hauetan haien bizitzaren azken etapan filosofia bera duten pertsonekin partekatuko dute, zahartzea «modu aktibo eta autogestionatuan, nahi ez dugun bakar-dadea saihestuz, eta elkar zainduz», azaltzen du Itziar Agirrebeitia.

«Ez dugu bakardadean, ez etxean ez erresidentzian, zahartu eta hil nahi», azpimarratzen du Agirrebeitiak. Ez du izkutatzen kooperatiba osatzeko prozesua luzea izan dela, «baina pozgarria aldi berean». «Hasieratik izan dugu Arterraren aholkularitza, eta haiekin ikasi, praktikatu eta hautatu dugu soziokrazia, parte-hartze aktiboa sustatzen eta bermatzen baitu». Administrazio publikoarekin harremana ere intentsoa izan da, Nafarroako Gobernuaren aitortza eta Iruñeko Udalaren orube bat lortu arte.

Hemendik gutxira Txantreako bizilagunak bihurtuko dira, eta auzoari ere ekarpena egin nahi diote: «Txantrea nortasun handia duen auzoa izanik, gure helburua bertan lekukotzea da, eta auzoari ekarpen positiboa egi-tea, jardueretan parte hartuz, ahal dugun neurrian lagunduz, auzoko sare soziala indartzeko behar den guztian lagunduz. Elkarbizitza, errespetua eta auzotarren arteko elkarlana asko baloratzen dugu», dio Agirrebeitiak.

Karabaña [Iruñea]

Karababaña lagapen etxebizitza kooperatibo proiektu jendetsua da. Gaur-koz, ia 30 bat pertsonak osatzen dute, hogeita berrrogeita hamar urte arte-koak, eta txikien bat ere bada. Etxebizitza arazoari aurre egiteko asmoarekin jaiotako proiektu honekin elkarbizitza amankomuna egitea dute helburu. «Egunerokoa jendearekin elkarbanatzea, elkarri zaintzea eta, baliabideak elkarbanatzea», aipatzen dute. «Gure artean badaude familiak baina bagau-de jende asko ere ez dioguna familia edo bikote nuklearraren estruktura-ri zentzua hartzen eta, egun, horren alternatiba bakarra dirudien guztiz bakarrik bizitzea ere ez dugu nahi», zehaztu dute kooperatibatik.

Proiektua, hirikoa bada, ez dute baztertzen landa eremura jotzea behar izanez gero. «Proiektua hasi zenean bi helburu genituen garbi: Iruñerrian bizi nahi genuela eta zentrutik bizikletaz 20 bat minututan egotea gustatuko litzaigukela».

«Iruñerrian bertan bizi nahi dugu», baina gaur egun ez da erreza. «Pisu turistikoaren fenomenoak bultzatuta, prezio jasangaitzak ezartzen ari ditu eta alokairu zein erosketa zaila gertatzen da egun. Alde zaharrean afera nahiko gaizki dago, baina baita beste auzoetan ere. Edozein kasu-tan, gurea bezalako proiektuentzako ere prezioak oso garesti daude, eta gobernuak etxebizitza jasangarria sortu nahi badute, prezioen kontrola ezarri eta laguntzak eman beharko lituzkete», azpimarratzen dute. Zentzu horretan, uste dute «momento ona» dela urratsa emateko, Iruñeko Uda-letxearen eta nafarroako Gobernuaren aldetik «gauzak errazteko jarreran daudelako», baina ohartarazten dute kooperatiba sortzeak berak denbora eskatzen du «eta gaur egun ditugun bizitza prekarioek ez digute denbora asko uzten bilera eta asanblada guztiak behar bezala egiteko». Horregatik instituzioei eskatzen diete denbora gauzak behar bezala egin ahal izateko.

Kooperatibaren oinarrien inguruan ere mintzo dira: «Zaintza eta pertsonak erdian jartzea da gure helburua. Proiektua ahalik eta jasangarrien egin nahi dugu. Feminismoa, antirrazismoa, LGTBQI+ espazio segurua izatea eta edozein pertsonaren eskubideak bermatu eta bizitza errazten dituen bestelako borrokak gureak ere badira».

MIKEL PAU «EL TINGLADO» ARKITEKTURA TALDEA

«Arkitekturak auzokideen arteko harrema-na erraztu dezake, espazio atseginagoak eta inklusiboagoak sortuz»



Nola baldintzatzen du eraikinen arkitekturak gure bizitza komunitarioa?

Pertsonen arteko topaketarako eta harremanetarako aukera handiagoak ematea erraztu dezake, proiektuan zer espazio mota erabaki diren eta nola diseinatu diren.

Adibidez, komunitateko eskailera eta pasabideak: ez da gauza bera leku mehar eta estuak izatea, pasabide hutsa izateko pentsatuak, edota espazio zabalagoak izatea, bertan eseri eta hitz egiteko, eta etxebizitzek leihoak izatea espazio horietara, denen artean zaintzen diren landareak izatea, argitsuak eta aire freskoarekin...



Orduan, diseinu arkitektonikoak bizikidetzat susta dezake...

Arkitekturak eraikin bereko auzokideen arteko harrema-na erraztu dezake, espazio atseginagoak eta inklusiboak sortuz, edonork autonomiaz erabili ahal izateko pentsa-tuak. Eta espazio horiek “arrakasta” ere izan dezaten, giza talde batek prest egon behar du errespetuz elkar bizitzeko.

Proiektua inklusiboagoa da eta bizikidetzat errazten du, hain zuzen ere, espazio horiek egokitzen direnean bertan biziko diren pertsonen errealtatera, eta errespetuz eta arduraz proiektatzen eta gauzatzen direnean.

Etxebizitza kooperatibetan, auzokideek eginkizun aktiboa dute susta-pen eta eraikuntza prozesuan. Izan ere, erabakiak hartzen dituzte beren etxebizitzetako gelen eta espazioen banaketaz, partekatu nahi dituzten espazio edo erabilerei buruz, eraikina birgaitzeko edo eraikitzeko era-biliko diren materialez, hartan kokatuko diren zerbitzu eta instalazio motaz.... Azken buruan, prozesu ireki eta demokratikoa da.



Eta zer ekarpen egin diezaiekete kooperatiba horiek gainerako auzokideei, diseinu arkitektonikotik abiatu-ta?

Lagatzeko edo alokatzeko espazio berriak molda ditzake-te, haietan proiektu sozial berriak sortze aldera. Eraikineko estalkia balia daiteke plaka fotovoltaikoak paratzeko eta energia-komu-nitate bat sortzeko, edo eraikineko etxabeetan merkataritza-jardue-ra daiteke eta, horrela, auzoari zerbitzu erabilgarria eskaini; edo ber-tako espazio kolektiboak laga jarduera komunitarioak egiteko, baratze komunitario bat sortu, etab.

Asier Gutierrez • Goiener
Leire Ros • Nafarroako Komunitatearen Eraldaketa Bulegoa

«Telekomunikazioak eta energia oso baliabide garrantzitsuak dira, eta ezin dira bakarrik enpresa handien menpean egon»

Asier Gutierrez Goiener taldeko langilea eta Leire Ros Nafarroako Komunitatearen Eraldaketa Bulegoko ordezkaria bildu ditugu herrialdean energiaren ekoizpenean garatzen ari den aldaketaz hitz egiteko. Elkarlanean, Nafarroan komunitate energetikoak sortzen eta laguntzen ari dira.



Hasteko, zer da komunitate energetiko bat?

Leire: Energia proiektu bat aurrera eramateko osatzen den taldea bat da. Momentu honetan Nafarroan 57 energia komunitate daude.

Asier: Komunitate energetikoen helburua onura sozial eta ekonomikoa lortzea da, baita ingurumenean ere. Eta, garrantzitsuena, herritar horiek ahalduntzea eta elkarlanak sortzea. Orain arte esan dezakegu boterea edo ahalmena enpresa handiek izan dituztela. Eta komunitate energetikoak herritarrei ematen die tresna ahalmena izateko eta boterea izateko, energiaren inguruan beraiek zerbait adosteko eta beraien helburuak aurrera eramateko.



Eta komunitate energetiko bat sortzen denean proiektu gehiago garatzen dira?

A: Normalean, lehenengo proiektua da instalakuntza fotoboltaikoa jartzea. Baina batzuetan beste proiektu batzuk aurrera eraman dituzte: bulego tekniko bat fakturak irakurtzeko, konpostajea komunitarioa... Ez da bakarrik instalakuntza fotoboltaikoak jartzea, askoz handiagoa da elkarlanak sortzea herrian edo auzoan, edota nahi ditugun proiektu guztiak energiaren inguruan. Energia trantsizioarako tresnak dira, eta gainera, herritik sortutako tresnak.

L: Adibidez, Nafarroan biomasarekin aukera asko dago, eta energia komunitate batzuk horren atzean dabilta. Edo, esate baterako, kotxea elkarbanatzeko: Kar Kar Car mugikortasun komunitateak ematen die zerbitzua beste komunitateei. Hasiera batean inbertsioak egitea zaila izaten denez, bilatu behar dugu denon arteko elkarlana eta errekurtsoen konpartitze hori.



Berriki itzalaldi masiboa izan zen Penintsulan, eta horrek eztabaida piztu du energiaren inguruan...

A: Itzalaldiak erakutsi digu aurrerapauso bat eman behar dugula. Telekomunikazioak eta energia oso baliabide garrantzitsuak dira, eta ezin dira enpresa handien menpean egon. Euskal Herrian alternatiba desberdinak daude, Izar-kom edo Goiener bezala.

L: Energia berriztagarriak etorkizuna dira. Gure energia sistema moldatu behar da bai teknikoki eta bai sozialki. Eta horretarako energia komunitateak tresna ezin hobeak dira. Energia sistema eredu ezberdina proposatzen dute komunitateek, zentralizatuta ez dagoena eta bakoitzak bere esku izan dezakeena.

«Itzalaldiak erakutsi digu aurrerapauso bat eman behar dugula, eta Euskal Herrian alternatiba desberdinak daude»



ELKARRIZKETAREN
BIDEOA

